

ZARR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

258n. zenbakia
urterrilla 2001



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**SANTA MARINA (MUNGIA'n)
BASALEIZA BARRIA'ren BARRUA**

- IKUSPEGI EDERRA**
- DONEJAKUE BIDEAN**
- JAI EDERRA IÑAKI DEUNAREN EGUNA**

BITXIKERIAK

ZENBATGURA ANTIBIOTIKO

Europako Batasunean 10.000 tona antibiotiko erabilten dira urtean -urtean eta kopuru orren erdia abereentzat izaten da.

Antibiotiko batzuk ez dira guztiz ondatzen gorputzean zear igarotakoan eta ondakin orreek uren sistemetara pasetan dira, edo lurrazalean pilatu leitekez landetxeetako gorotxakaz batera erreketara eldu arte.

Batzuen eritxiz, lurrazalean eta uretan pilatutako antibiotiko orreek eragin dabe gaixotasun batzuk antibiotikoei deuseen erresistentzia garatzeko.

Edozelan be, ez dago ingurualdera isuritako antibiotiko kopurua mugatzen dauan ezelango legerik, ez estatu milakorik ez eta nazinoartekorik be.

Nazino Batuek esan daben bakarra auxe da: landetxeko ektarea bakotxeko 7,5 gramo antibiotikotik gora pilatuta badago, ingurune eraginaren ganeko azterketea egin bear dala.

Orain dala gitxi, ostera, muga ori 75 gramoragino igon dabe. Albaitari eta zientzialari guztiak ez datoz, jakina, igokera orregaz bat. Ikerketa gitxi egin da, ganera.

Estatu Batuek aurkeztutako ikerketeak, esaterako, ez eban antibiotikoakazko erresistentziaren garapena beraren barruan artzen. Baina, orren argigarririk euki ez arren, susmo txarra ortxe dago.

BEIREA BE KAMALEOIA DA

Alemanio Dresden uriko banku batek leenengoz erabili dauz argi intentsitatearen arabera gardentasuna aldatzen jaken beirazko leioak.

Egindako saiakuntzek material ori eraikinak girotzeko bearezko izan oi dan energiaren %50 aurrezteko bidea dala adierazo dabe.

Beireareh ganazalean wolframio oxidozko geruza meea itsatsita dago eta geruzatik zear pasetan dan intentsitate txikiko elekrizitate-indarrak mintzaren margoari aldatu eragiten deutso.

Alan bada, beira gardena urdin biurtzen da.

Kaletik datorren argiaren intentsitatea oso andia danean, beireak gardentasuna galdu eta eraikina fresko eukiteko aire girotu gitxiago bear dan lez, energia aurrezten da.

Argiaren intentsitatea txikiagotzen danean, ostera, beireak asikerako gardentasuna birreskuratzen dau eta argi artifizialen bearrizana txikiagoa da.

Eraikin osoko leioetako beirearen gardentasuna era zentralizatuan kontrolatu leiteke.

ANDRAZKOEK GIZON GOITIAK GURAGO

Andrazkoek gizon goitiak (altuak) gurago dabezala aditzera emon dau Robin Dunbar psikologo eboluzionistak Polonio Wrocalw urian egindako ikerketearen arabera.

Eboluzinoak eta aukeraketa naturalak abereengan ez eze, gizakion jarduera sozial eta sexualean be eragina daukala erakutsi gura dau Robin Dunbar-ek eta, orretarako, 25 eta 60 urte bitarteko 4.400 gizonetzko osasuntsuaren goierea (altuerea) eta izandako ume kopurua alderatu dauz.

Olan, umerik ez euken gizonetzkoak umeak eukezanak baino txikiagoak zirana ikusi eban. Ikertzailearen ustez, goierearen agiriko eragina ez da bakarrik gure gizartearen edertasun ezaugarrien ondorioa.

Andrazkoek gizonetzko goitiak gurago badabez, sasoi baten goitia izatea gene obeak eta bizirik irauteko aukera geiagok eukiteagaz lotuta egoalako da.

Beste ikerketa batzuk lar goitia izatea be ez dala ona eta andrazkoen goiera ezbardintasuna ez dala gizaldirik gizaldirik anditu, diño.

Itxuraz bitxikeria izan leitekezan ikerketek oinarri mamintsua dauke: izaki arrazoidunak izan arren, aukeraketa naturalak guregan be eragina daukala egiaztatzeke asmoak eta ustez gizartekoak baino ez litzatekezan edertasun ezaugarrien atzean zer edo zer geiago badagoela aditzera emoteko asmoak bultzatzen dabez ikerketa orreek.

EKINTZAK (BAKIO'N)

BERBAURREA

Euskaldunak lurrari zein etxeari begirune andia izan deutse beti. Etxeak aterpea ez eze, izena eta izana be emon izan deutoz euskaldunari.

Lurrak, barriz, zer jatekoa, bizia, bizi-arnasea, atan be: Norberaren lurrak eta etxea galdutea, norberaren izena, nortasuna galdutea lez artu izan da beti gure artean. Norberaren duintasuna galdutea, azken baten.

Errion lurrari begirune andiagoaz begiratu bearko geunskio.

Bakiok erri nortasunari gura badeutso eutsi, lurrari sendoro eutsi bearko deutso, gurataez. Lurrari zein etxeari, **nor** eta **non-tar** izaten jarraitu aal izateko.

Lurrari eutsi ezean, beste batzuk izango dira nor gure etxean. Gure umeek **nor** ori arrotasunez biotzean croan daien, egin daigun bear.

Ez daiogun oso katolikoa ez dan kontsumismo merkeari aterik zabaldu. Ez dogu damurik izango.

Iniaki MARTIARTU

OTEL BAT MIR ESPAZIO ESTAZINOAN

Gure merkatuak ez dauka mugarik. Lurra txiki geratu jako aurki, eta orain espazioa bereganatu gura dau.

Daborduko, Mir espazio estazinoa pribatua da, Errusiako Gobernuak enpresa buru estatubatuar batzuen esku itzi dau eta.

MirCop enpresek espazio estazinoan otel bat ipinteko asmoa agertu dau, baina oraindino ez dau zeaztu zenbat kostako dan gaua suite nagusian.

Karua izango da, ori seguru, Mir otelak Lur planetako otel guztiek baino izar geiago eukiko dau eta. Izarrak, ganera, benetakoa izango dira.

Daborduko, apirilaren 3an, errusiar astronauta bi joan dira estazinora. Dana dala, errusiarrek oraindino ez dakie luzaroan egongo ate diran espazioan, MirCop enpresek zeaztu ez dau-lako zenbat diru ipiniko dauan.

TANPOIAK ETA KONPRESAK, LUXUZKOAK?

Antza danez, ainbat errialdetan tanpoiak eta konpresak ez dira preminazko gaiak, luxuzkoak baino.

Britainia Andiak, esaterako, %17,Seko zergea ezarten dau tanpoien ganean.

Ego Euskalerrian eta Espainian antzekoa da egoerea: ilekoa dauken andrazkoek %16ko BEZ ordaintzen dabe tanpoiak eta konpresak erosten dabezan

Jatetxeek, preserbatiboek, motorrek eta lorek, osterak, %7ko zergea dauke, aurki, konpresak eta tanpoiak baino preminazkoagoak diralako.

Britaina Andian andrazkoak kexetan asiak {lira, eta Ogasun ministroak agindu dau konpresen eta tanpoien ganeko zergak naiko txikituko dauazala.

Gurean, berriz, aldarrikapen orrek ez dau zabalkunde andirik euki.

EAEK ISKILUAK TURKIARI

Euskal Autonomia Erkidegoko industriak 5.000 milioi peze-ta esportetan dauz iskilu arinetan, inguruko erriek baino askoz geiago.

Erosleen artean giza eskubideak errespetetan ez dabezan gobernuak dagoz, barbarako, Turkia eta Indonesiakoa.

Europako Batasunak gatazka armatuak daukezan erriei iski-lurik ez saltzeko eskatu badau be, euskal enpresek ez deutsoe jaramonik be egin.

Amnesty International, Greenpeace, Irtemon eta Mugabako Osagileak taldeek gogor salatu dabe iskilu saltzea, eta ori galazoteko eskatu deutsoe Eusko Legebiltzarrai.

ZIDURI

ERAKUSKETAK (2000 urtean)

Sasoi onetan Kultur Etxean euki doguzan eta etortekoak diran erakusketak oneexek dira:

– Marta Cárdenas-en marrazkiak, zezeilaren 8tik 22ra arte.

– Ana Isabel Roman-ek egindako "Ametsetako hiria", zezeilaren 23tik martiaren 13ra arte.

– "Non dago zure laranja erdia?", Emakundek ekoiztutako erakusketea, martiaren 24tik apirilaren Sera arte.

Maximiliano Tonelli-ren argazkiak, apirilaren 14tik maiatzaren 2ra arte.

Iniaki MARTIARTU

"EPSA " Europako txapelketarako leia puntuagarria (2000n urtean)

Bakioko Surf taldeak garagarrilean "EPSA" izeneko Europako txapelketarako leia puntuagarria egin gura dau gure errian.

Euren esanetan, leia ori garrantzi andikoa izateaz ganera, Bakio Europa mailako surfeko erreferente biurtuko dau ainbat egunetan barrena.

Era berean, guztiz zeaztuta ez badago be, aitatu egin deus-kue Ipar zein Ego Euskalerriko surfarien arteko txapelketa egiteko asmoa daukela.

Ganera, eta urtero lez, aurtengo udan be jarraituko dabe gazteenak surf munduan murgiltzeko eskolak emoten.

ZIDURI

BIRZIKLATZEA ETA ONURA EKOLOKIKOA

Holandako TNO ikerketa zientifikorako institutuak eginiko ikerketeak onakoa adierazi dau: gaur egun erabilten diran birziklatze tekniken bidez plastikozko ontzien %15 baino geiago birziklatzea ekologikokiro ez dala onuragarria.

Europako Plastikogileen Alkarteak (APME) eskatutako ikerketearen arabera, birziklapen tasca %15etik %50eragino geiagotzek kostuak %300ean andiagotuko leukez eta onura ekologikoak sano mugatuak izango litzatekez.

Onuragarritasun ekologikoa lortzeko bideak etxeetako ondakinetatik eratorritako energiari etekin andiagoa ataretea eta birziklatze mekanikoa bultzatzea dira.

Bestetik, industrian sortzen diran plastikozko ondakinak birziklatzeko aalegin andiagoa egin bearko litzatekela dino APMEK.

EUSKAL BARRUA MARZILLA'N

Azaro'ko 12'an, idaz-lan bat egin nuen Martzilla'ri buruz, Latxaga eta ni bertara joanda, gure orduko ardurak, Euskara eta beren ikas-bideak gai zirala. Batez, beste egoe-ra-larri batzuekin konturatu gintzazan, "oso kezkatu-rik itxi ginduezanak" `Beldurraren susmoa igarri gendulako".

Etxera eldu giñanean (Lizarran) zergairik! itaunka as; giñan, eta bereala iker bidean kokatu gintzazan, bertan ikusitakoaz:

- Langintzaren beldurra?

— Guk, erriberatik egin doguzan ibilketatik, argi igertzen dan gauza da arlo ortan.

Ez dana ja igertzen, euren arteko arremantaren mintzalditan: gauza bat esaten dabela azaletik, sentikizunean beste gauza bat eukinda.

- Euren artean danak jakinda?

— Nere ustez egia da, eurak Naparrak dirala esaten dabelako.

- Orduan..., zergaitik uPN'ri ainbesteko autarkia eman?

— Or! agertzen dalako jakin-ezaren beldurra. Eta esku-matarrak, ondo baiño obeto jakin dabelako: "Nortasunaren eza eta beldurra alkartuz, daukaten autapena lortzeko".

- Baiña zelan izan leike ori, eurak Naparrak dirala esaten ba-dabe?

— Konturatu bear gara, Nafarroan, edozeinetariko lur unetxotan eskua sartzen ba-do-uz, odolez beterik atarako dozula, gure lenengo erregetatik asita. Bestela or daukazuz Obanos'ko aitor- seme, aitonen seme edo etxeko semeak (Infanzones), geiagi ezinean, erregearen aurrez-aurre kokatuta esan eutsoenak. "Gu'tariko bat zure-beste, danok alkar-tuta zu baiño geiagi". Gure erregeak, Eleiza eta aberatsak oker jokutzen as; zirelako Europa guztian, danon ardurak eta diruak euren eskuetan gura ebelako eukitea; au da, lapurketan as; ziralako (gaur egun ere, or gabiltz, orduko okerrak mogimenduan ipini ziraretik, zuzendu ezinik), eta kontuan eukiten badozuz gaizkilleak... orregaitik batu ziran aitaren-semeak.

Eta edesti odoltsu orretan jauzte (salto) aundi bat egiten ba-do-uz karlisten denboraño..., euren oiñarrizko FuERO'tatik, espainolak biurtu ziran ainbat beintzat.

- Ori ezinezkoa da!, FORU'ak nor-bereren askatasuna esan-gura dabelako, NAFARROA'ren ASKATASuNA!

— Or ba!, Nortasunaren ez-jakintasunak noraiño eroaten dauan erri bat, apurka apurka eriotzara igarri barik!

Argi dago, Nafarroan naastetasun aundia egon dala, ez-jakintasunean jauzi diralako; eta geiagi, ze lan aundia daukien (gure laguntzaz zalantzarik gabe), euren izaera berezia berrezkuratzeko "EuRAK IZAN GuRA BA-DABE":

- Orregaitik..., Nafartarrak Nortasuna galdu dabe?

— Ez da olan gauza ori: galdu dabena Iparra izan dalako ez-jakiñaren bitartez. Indarrarekin ainbeste gezur sartu dautselako buruetan. Baiña zorionez, gaurko denborak Iparrenak, Nortasunarenak dira, eta orregaitik itzartu daitezcan, jakin-erazi zeatza emon bear jakie. Berez! agertuko dira eurak diran izaerara.

Or!, bear daba laguntza asko eta guztiz atsegin-sariz, euren etorkizuna, Nortasunaren irabazleena izan daiten EuSKALERRIA'rentzat.

- Martzilla'n argi ikusten da, nola Gaztelarrak edo Espaiña'ren iritzikoak indarkeriaz edo izandako indarkerien denborak erakutsiaz nola zaintzen daben, beldurrak jarraipenean irauan dagian: keleetako izenak, euren izen iztun-arri-garriakaz jipinten dabezelako, adibidez: "Príncipe de España, Plaza de España", eta bada ez-badan gudal-nagusien izenak ere bai. Begitu bestela euren jokoa ziur jakiteko Gazteizen egin dabena: udal-etxean onartu Euskadiko lendakari-izenak "Garaikoetxea'tar Karlos eta Ardanza'tar Jose Antonio" kaleen izenak izan daitezcan, eta orain "Baldomero Espartero eta General Loma"ren kaleak izena ipiñi. udal-letxea PP'ra aldatu danean. Leenengo jaurkintzaren agindua kendu dabe, jarraitu dagien Kaleen izenak gure etsai aundien eta amorratuen izenakaz.

— Baiña Martzilla'ko seme/alabak beti izan dira abertzaleak, bestela or daukagu ANA de BELASKO XVI'garren gizaldian, aurka egin eutsonea Villalba Koronel'ari, Cisneros Kardinalaren agindua betetan joan zanean Martzilla'ko gaztelua murrizten.

Beste gauz-bat agertzen jaku gure ez-jakin zitalagaitik: gure gaixo'ri "ISEKA" (burla) egiten dautsagula lagundu bearrean, benetako txirotasunean gure erri ber-bera sartuz lotsagizun gabe, Espainola'ren eritzikoak dirala esanaz, Euskal sustraitasuna kontuan euki barik. Eta kontuan euki daigun, Nafarroak sekula! ez dautsola ezetzik eman Euskal Estatuto' ari.

Dana dala, Nafarroak osasunaren bidean jarraitu ebanean, Franko'ren gudakin ostera ere illuntasunera sartu ebezan Nafartarrak, eta or dagoz Espaina'ren iritziko "agin-indartsuakaz" elduta, mugi aldirik ez dagian egin, GEZURRA eta EZ-JAKINTASuNEAN Nafarroak jarra; dagian.

Jakin ezak, gauza-txar asko ekarten ditu, danon zoritxarrerako, eta Naparrak (gu ere bai) badaukie bai! lan ugari; kas-bidetik Nortasunezko ardurak bideratzeko. Nortasunik gabe, ez dagoalako JAINKOAK emondako aginduaren ardurak zaintzerik, eta gitxiago BIZITZARIK, "NORTASuNAREN EZA, ERIOTZEA DALAKO":

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2000'ren AZARO'ko 30'an



ALDI ZKARI ONEK
BI ZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

IPARSTABADIKON K

Umandi'ren bere GENTZA
BEAREAN: BERE 18 ata] buruan nola
Asparena'ko ikastola'ko umeak txango bat
Estibalitz'era egiten dutela edesten du eta
olarki batzuk ekartzen ditu:

1- Estibalitz'eko Ama
Neskuts done-donea,
Zuretzat biotza, ona
Guzia da zurea.

2- Araba'ko Zaindaria
Ama erukiofa,
Onar gure eskaria
Kartsu ta maitekora.

3- Zaindu, bai, nire gogoa
Berdin ene gorputza,
Ura sinistunagoa
Beste oso utsa.

4- Emaiguzu itxaropena
Emon alaitasuna,
Zuganako eraspina
Berebar maitasuna.

5- Zureak dituzu aurok
Zureak gure otoryak
Zureak be arabarok
Zureak gu'e deyak

6- Zuregana gatoz egun
Abestuten lekayoz,
Zure babes oso aldun
Aurkitzeko nai beraz.

7- Zure semetzat onartu
Ama txit maitekofa
Zuganaño aureratu
Txikiteri ijuikora.

8- Ama deitu nai zaitugu
Miren Ama maitea,
Guretzako beaf dugu
Izen ori gordea.

9- Eskeiñi gura dizugu
Gure biotz lenago.
Osorik onar zaiguzu
Gero ta gartsuago.

10- Eskeiñi nai dizkizugu
Gure puskatxuak be,
Erian artu ditugu
Bakoitzak hana bere:

Gero Aspafena'ko efi bakoitzatik. eta
inguruan dagoen beste efietatik, bertso
barla esaten dute:

ANDOIN:
Andoidafak moñiño bat
Legun eta otzana,
Onera, oña naiz arat
Miauka ta laztana.

IBARGUREN:
Ibarguren txakurtxoa
Gaiztoño bada,
xamur Iruditzen da croa
Sumatuz ogi-kuskur

URABAIN:
Urabain'etik bildotsa
Kiskurez bete soña.
Beeka da bere otsa
Bakun zuridun aña.

DUKUMA DEUNA:
Duruma Deunak antxume
Ikotika ibiltzeko,
Dakarkizugu erabe
Berekin jostatzeko.

EGINO:
Egino'ko untxi bitxi
Belariak tentetxo.
Tuku-tuku daki ibili
Totoka be gaiztotxo.

ILARDUYA:
Ilarduya'ren erbia
Pitxi ta ibilkari,
Goiztiri ta arastaria
Ezin geratu geldia.

AMAMIO:
Amamio'n sortu txita
Zugana pio-pio,
Bere opari polita
Ofela sortzen zayo.

ARAYA:
Araya, erle lantzalek
Ezti eskeintzen dizu,
Itxaron Estibalitz'ek
Gero obe emanen baitu.

ALBENIZ:
Albeniz'en tximeleta
Egazka dahilena
Bere margo edef sorta
Ona ekari duena.

AMEZAGA:
Amezaga'n (lago gira
Bertatik igeltxoa
Kro-kro egiñik, onera
Zuretzat da osoa.

ZALDUENDO:
Zalduendo'ko aatea
Egan, ibil, igariz,
Zugana gaur etortzea
Buruak eman antsiz.

GALARETA:
Galaréta'n usakuma
Gogotsu dabil beti,
Eztiena dun uruma
Eskeintzeko isi zuri.

GORDOA:
Gordoa'tik txoriñoa
Txiruliz datorkizu,
Txikia bada soñua
Biotz-maitale sutu.

ARIOLA:
Ariola'n katagofi
Adañez-adañ, punpa,
Zugana ari ta belari
Zugan dago pulunpa.

EGILAZ:
Egilaz zear txinduri
Azkuria biltzen du,
Zuretzat gura ekari
Ta biotzez eskeindu.

AZPARENA:
Azpafena'ko auf oro
Emen gauzkazu, AMA,
Zureganaño aboro
Maitasunak garama.

Azkenak ororenak:
2/1 Poz eta atsegiña oso
Datozkigu Zugandik,
Biziko gera eroso
Areago oraindik.

2/2 Miren Ama
Maite zaitugu ziñez,
Zureganako ustetsu
Goaz itxaropenez.

2/3 Guztiz maitazale zeran
Gure Ama laztana,
Zure seme auen yoran
Betiko Zu zerana.

2/4 Gure erietan bafena
Abesten dugu bero,
Zuretzako eraspina
Aunditzeko gaugero.

2/5 Alaiturik eldu gera
Ba-goaz alai-alai
Agur Ama biozbera
Izan beti gure zai.

BURDIN-OLAK (ETA VI): LABA AUNDIETARA

Bizkaia'n antxiñatik izan dogun burdin-zaletasuna nondik nora ibilli dan aztertu dogu aurreko bost idazkitan. Begiratu dagigun orain aspaldiko gure errira eta ikusi dagigun nondik nora eldu giñan burdin lan onetan goi-maillara eta gaur non gagozan.

LANGINTZA BARRIRA

XIX gizaldiaren joanean Bizkai'ko burdingintzaren aldaketa agertu da eta asmakizun barriak arlo onetan izan daben ikutua be somatzen da, ez bertokoa bakarrik, beste lurralde batzutakoa be bai. Eta arduraz ikusi dogu aurrerapen oneik arriskuan ipiñi dabela gure burdin-azoka.

1848n. urtea garrantzi aundikoa da burdiñearen edestian Euskalerrria'n. Urte orretan asi eban bere aurrerabidea gure lenengo Laba Aundiak, egur-ikatzagaz doian Bolueta'ko Santa Ana Lantegiak. Urrengo urtean asi zan lanean Barakaldoko Karmen'go Andra Mari Lantegia. Lantegi bi oneik izan ziran lenengoak burdiña gozoa lortzeko Chenot bidea artzen. 1871n. urtean olako zortzi taba geunkazan eta urte orretan alboratu egin bear izan ziran. Antxiñako olak baiño askoz obeak ziran, baiña ez lana merke egitekoak.

1860n. urtean Gastaka Burdindegian aztertu zan beste lan-era bat, Tourangin'ek asmatua. Au ez zan besterik Chenot-bidea bera obetuta baiño. Bide orretatik 1862n. urtean asi ziran lan egiten Bedia burdin-lantegian eta geroago Aldanondo'n, Berriz'en, Alonsotegi'n, Usansolo'n, Bolueta'n eta Astepe'n, baiña 1886n. urtean Astepe'n baiño ez zan egiten lan orrelan Jauregi'tar Juan Jose'k lanbide barriak aurkitu ebazalako.

MEATEGIARI BEGIRA

Aldi aretan, gizaldiaren asieran, Bizkai'ko meatzetokiak iru burdin-mota eskintzen ebezan: Bena gozoa, Kanpanil'a eta Errubioa. Bena ematites gorria da, biguna ta buztin gitxi daukana eta %58 burdiña dana. Gizaldiaren erdira anean orixe baiño ez zan erooten burdin-oletara. Baiña ain ona dan meatz au astiro-astiro amaitzen joian, batez be erbestera saltzen asi giñanean, eta orduan kanpanil ateraten asi giñan. Au be ematites gorria da eta %55 da burdiña. Bessemer lanbide barri-rako bear-bearrekoa zalako, asko saldu zan, Laba Aundiak be asko bear eben eta au be amaitzera joan zan. Orduan errubiora jo bear izan zan, au be ematites da

baiña ez gorria, nabarra baiño, eta %53 da burdiña. Au da azkenengo ateraten izan doguna, baiña ez asko.

LABA AUNDIEN ERAIKUNTZA

1882n. urteko abenduan sortu zan izenbakoan Alkarte bat "Bilbao'ko Laba Aundiak eta Burdin eta azeroaren Lantegia". Amabi milloi ta erdiko dirutza eukan. Guriezo ta Barakaldo'ko lantegia be beragan eukazan, gaiñera "Salta Caballos'en sei burdin-toki, Mingolea ta Erretorta'ko errotak eta Nerbion-ibaiari ta Galindo errekeari kendutako lurrak eta Orkonera ta Franko Belga'ri meatzak saltzeko ituna.

Asmalari batek artu eban ardurea mundu oso au batzeko eta iru urteko epea emon jakon Laba Aundiak sortzeko. Azkenez 1885n'eko urrillaren 8n. egunean atera zan lenengo burdin-agea.

Orregaz batera Bilbao'n beste alkarte bat sortu zan: "Bizkaia metalgintzarako ta eregintzarako Alkarte", dirutza bardiñagaz eta Lantegia Sestao'n egitekotan. Alkarte bi onek bat egin eben 1902n. urtean eta ortik sortu zan oraintsura arte indar aundikoa izan dan "Bizkai'ko Laba Aundiak". Geroago Desiertu'ko Franzisko Deuna lantegia batu jakon baita Etxebarria burmeen lantegia be.

Ez doguz aitzuta itzi bearko Ugao'ko San Bartolome eta Usansolo'ko San Juan. Barakaldo-barruan ordurako bere lanean ebillan Santa Ageda lantegia. Azkenean onein lanak ezin egin izan eban besteen besteko norgeiagoa eta galdu egin ziran.

Nire barri-emolle dan Joakin Almunia Leon'ek azterketa au egin ebanetik ona gorabera aundiak sortu dira: Nok uste izango eban gure Laba Andiak be larrialdira sartu eta jausi egingo zirala? Ba orrelan jazo da, guk al izan dogun onurea atera arren. Egia esan, Laba Aundietan egiten zan burdin-lanak ain urtenbide ona izan ba'eban, ori emengo jauntxuak Madrid'en eukan izenagaitik izan zan eta monopolio antzeko bat eukelako España'n lantegiko ondorenak saltzeko. Baiña beste egarri batzuk agertu ziran Aviles'en lantegi barria sortzeko. Atzeraka asi giñan eta azkeneraiño eldu gara.

Jarraitzen dau gure artean burdin-lanak, baiña gaur geiago makurtu gara irugarren Gizarte-arlora, serbitzueta-ra: Kai Nagusia, Guggenheim, egazkin zelaia ta abar, baiña irugarren gizarte-arlo au labankorra da eta larri-unea datorrenean lenengo auxe jausten da. Asmamena ez daitela illundu eta aurrera!

OLAZAR'tar Martin'ek

ZIORTZA: (VI) ELEIZ-TOKIAK

Eleiza aundietan, gotzain-eleizetan be bai, alboetan eleiz-tokiak, kapillak, izaten dira. Ziortza'ko eleizeak, aundia izan ez arren, ba-dauz toki bereziak. Aztertu daiguzan urregorik urregora.

MIKEL DEUNARENA

Ezker- aldetik eleizearen erdi-inguruan dago.

Sarreran arku eder bat aurkitzen dogu, apur bat erpindua eta arku-arlo bakoitzean apaingarriak dauzala.

Barrura sartu ezker, XVIII mendeko margozki aundi bat ikusten dogu: Xabier'eko Frantzisko inditarrak bateatzen. Irudi margotu orren aurrean, altarearen gainean, Txerrena menperatuta daukan Mikel deunaren irudia dago. Au XV gizaldikoa izan daiteke. Alboetan itxurea dana kentzen daben irudi bi, "Olot" tankerakoak. Oneik ez dabe egiten besteren edertasuna maiztu baiño.

Arrizko irudi eder bat dago emen, Ibaseta abizenaren ikurdia, alde bakoitxetik kimera batek eusten dautsala. Au toki onen atzeko orman dago.

AMA NEKETSUARENA

Mikel deunarena baiño altaratik urrago dago, altara-inguruaren ondoan. Sarreran arrizko arku, ez puntu-erdizkoa; beeratua edo eskartzano deritxona baiño. Burdiñezko sara bat dauko inguruan.

Toki au 1531n. urtean egiña da. Altara txiki bat dauko barruan eta onen iruditegiak puntu-erdiko arku dauko inguruan. Iruditegia zurezkoa eta margo askoduna da eta Kristo illa agertzen dauku amaren besoetan. Ortik tokia- ren izena: "Capilla de N^a S^a de las Angustias".

Notiñak dagoen lez eta ain eraginkor dagozelako eta euren agerkerea bizi-bizia dalako, gero agertuko dan Baroko tankera iragarten dabela dirudi, urten-urtenak (alto relieve) diran irudiak, argi sartzen dira klasiku-tan- keran. Ibarra'tar Javier'ek diñoanez, Beaugrant'tar Guiot'enak izan daitezke. Orozko'n dan Olarte'ko Ama Neketsuaren taldeagaz dauan antza artzen dau orretarako oiñarri lez, eta au bai, au margolari flamenko onena da.

Aztergarria da toki au eleizatik banatzen dauan burdin- sarea, benetako erti-lana. 1550n. urtean egin eban Urisa-



ri'ko Juan Lopez'ek. Arrasate'koa izan zan au eta beronen maisu zan Logro- ño'ko burdi-saregile baten bideak jarraitzen dauz.

Burdin-sare au arrizko orma-ertz baten gainetik doa eta zati bi daukaz, bekoa goikoa baiño ohea eta goiko au apaindua Irusta abataren irudiaren ingur- uan. Irudi au erdi-inguruan dago.

Ama Neketsuaren Eleiz-toki onetan dago XVI gizaldian "Kolejiata" onetan abat izan zan Irusta'tar Diego'ren illo- bia. Illobiaren gainean irudi talde bat: Abata belauniko aurki baten eta aurki onetan abataren abizenaren ikurdia. Gaur ikurdi au alboko orman dago, aurkirik ez dagoalako.

Irusta Abata bera sotana baltzaren gainean garri-gaiñeko jazki zuria daua- la dago.

Beronen atzean beste gizaki bat agiri da, zutunik eta beroneri begira. Ibiltari edo erromes bat izan daitekela diño, alboz boltsa bat eta Txapel baragarri baten zerrede- tan oskolak edo kontxak daroazelako.

Irudi biak zurezkoak eta bizi-bizia dira. Aste Santura- ko egiñak diran irudigille españatarren batzuk gogoratzen dauskuez- Mugartegi'k doñosku abatak irudi au ikusi eba- nean auxe esan ebala: "Ba-nekian motza egin nunduela jaiotzatik, baiña ez neban uste ain motza".

Mugartegi -k diñoanez, irudi oneik abata koroatua izan zaneke irudiak dira eta erromesa dakoroia ezarten dautso- na. Orretarako mitra bat bear eban, baiña gaur ez dago mitrarik, eta orduan be ez.

Irudi oneik be Beaugrant'eko Guiot'enak dirala diño.

KRISTO KURUTZEKOARENA TA ECCE HOMO

Altarearen ondoan eta eskuma-aldetik, Kurutzeko Kris- to'ren altarea egoan. Au gaur Ama Neketsuaren eleiz- tokian dago eta ordez mai bat ipiñi da eta mai onen gainean Ecce Homo'ren irudi bat, gizonaren neurrikoa eta XVIII gizaldikoa.

Eskumako orman be-beian arri-idatzi bat dago eta Ikaz- tegi'tar Juan'ek eta onen emazteak egiten daben curen olako irabazien emoitza gogoratzen dau.

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ASPALDIKO BARRIAK (2000 urtean)

(Bakio)

ASTE SANTUKO TAILERRAK

Aste Santuan, apirilaren 25etik 28ra arte. **txikientzako tailer-rrak** eratu ziran Kultur Etxean, adinaren arabera txanda bitan eta euskera utsean.

LAUKIZKO

LIBURUTEGIA

ERLOJU MEKANIKOA, Philip Pullman: Erloju baten giltza emonkeran, badago zeozer apur bat bildurgarria beraren eritmoa aurrera doan era zorrotzean.

Istoria aurkeztutako oso era bitxia.

Jazokerak agertu aalean, agertu egingo dira edesleak guri irakurleoi zuzendutako lorratz bereziak.

KRABELINEN HERRIMINHA, alkarlanean: 1974ko apirilaren 25ean, ainbat irratik Grandola Vila Morena abesti eza-guna aireratu ostean, azkena emon eutsoen portugesez Salazar diktadorearen bildurraldi luzeari.

Ego Euskalerrian ez genduan grandolarik euki.

Gure amorruren zurrumurrua seaska abesti biurtu ekion Francori, ez genduan besterik egiten jakin.

Orduan ikasi genduan Portugalari beste begiz hegiratuten.

Orduan jai() ekigun amesak orrialde ederrak idatzi dauz guro literaturearen liburuan.

LAMIA, Josu Lartategi: Egan bildumako liburutxu au Euskaltegiko 2. mailan irakurteko da.

Laminak euskal pertsonaia mitologikoak dira.

Kontakizun onetan lamina gazte baten ibilaldiaren barri eukiko dogu.

IRAKURKETA - SARIK

Nagusientzako udako azken barrikuntzak erosi doguz.

Uda onetan be, irakurketea bizkortuteko jarduerak egon dira Bakioko Kultur Etxeko Udal Liburutegian.

1) **Irakurketa leiaketea:** Liburu bat irakurri ezkeru, fitxa txiki bat bete bear izan da.

Fitxa ori zozketa baten sartu da. Geien irakurri dauanak leenengo sana irabazi dau: Skate (edo antzeko sana) eta Harry Potter liburu bat. Orrezaz ganera, billabong motxilak eta olako geigarriak be egon dira zozketan.

Eskuartzaile guzti-guztiek liburu bana euki dabe sarizat.

2) **Sorginkerien liburutxua:** Eskuko liburu onetan sorginen eta sorginkeriaren ganeko liburutegiko ale guztien zerrenda agertuten da. Liburu orreen fitxeak irakurketa leiaketako zozketan fitxa biren balioa artu izan dau.

3) **Ipuin kontalariak:** Garagarrilaren 20an eta 27an HIRUKI TALDEKOEK umeentzako ipuin saio bereziak egin ebezan.

4) **Irakur puntuak:** Garagarrilaren bigarren amabostaldian irakur-puntu "pertsonalizatu" diralakoak egiteko aukerea euki dogu liburutegian.

Irakurleei liburutegiko plantila bana emon jake eta or liburutegiko liburu pertsonaiarik begikoenak margoztu dabez.

Izcnpetzea imini eta gero, barriro Kultur Etxea eroan bear izan da plastifikatuteko, eta orra or irakur puntu "exklusiboa".

Maria S.

ETBren LAPRASTADAK

Zelan erabili bear dira gure erri, mendi, erreka eta bestelango lekuen izenak'?

Antza danez, eta agozko emoitzeari jagokonez, urrengo lerrootan azalduko dogun kasuetan, gixtienez, ETBk erabagia artuta dauka. Ebatzi okerra, baina.

Ez dira izango aste bi, Bizkaiko itsasaldeari buruzko ETBren saio bat ikusten genduala, JATA mendiaren izena entzun gendua: espainerazko "j" belare-gorra (*jamón*) erabili eta azentua leenengo silaban iminita (*Játa*). Bada, euskeraz ez da olan esaten.

Jakin beie ETBkook, Jata mendiko inguruko euskaldun guzti-guztien agoetan mendi orren izena esaneran, "j" sabaikari-ozena eta azentua bigarren silaban esaten doguna, au da: JATA [**yatá**].

ETBk erabilitako emoitzea [xáta] ez da euskerazkoa eta gure belarrietan arrotza da guztiz.

Izan be, euskaldunak ez diranek zabalduko agoskera okerra da.

Mailegu batzuk kenduta, gure inguruko euskerearen "j" ori sabaikari-ozena da jatorriz [y]. Beste orrenbeste, gure lurraldeko JATABE, SANJOANALDE, JAUREGI, JAUREGI-ZARRA... toponimoak agoskatukeran.

Gure erriaren izena. BAKIO, be entzun genduan saio beratan, txarto agoskatuta, entzun be.

Azentua leenengo silaban iminita, erdalduen erara. Azentua. baina, "jo" diptongoa apurtuteko edo, "i" orretan erabilten dogu guk euskeraz, au da: BAKIO (*bakío*), Arratia (*arratía*) eta Donostia (donostía) lez.

Izkuntza arloan eredu izan bearko ETB, benetan eredu izan beite! Erri euskereari zor jakon begirunea aaztu barik, baina.

Iniaki MARTIARTU

ZAARRAK BARRI

Bai, aretza baketsua leengo urte areetakoa gure **Arenga!**

Bertatik asita eta itsasbartzerrari jarraituz, **Gaztelugatxegino**, asko ez baina, inguru zeozer aldatu dana ikusi geinke ingurari begiratuta. Aamen be, lorratzak itzi dabez gizakiek.

Askada inguruan, eta goratxuago be, etxe garai (eta motz) batzuk eregi dabez, baita **Karabiaga** inguruan be.

Talaiapen, aor, atx artean, etxe mardo zutundu dabena be ikusi leiteke.

Ostean, **Oietaginoko** unadearen beeko aldean, arrobia egon, zan tokian, gure «urak» garbituten dauzan uren araztegia daukagu, arri eta atx artean ostuta.

Baina orixe bai, andixik eta **Gaztelugatxeginoko** itsasalde zein lurarren erliebeari. gorabeera eta sartu-urteñez beteta (**Atxulo** inguru, **Lurgorri** lurmusturra, **Gorosti** mendia), badi-rudi gizakiek oraingo ez deutseena larregi eragin.

Beintzat, zeozerreri eusten deusogu garbi eta ukutu barik. Alan jarraituko aal dau unte askotan! Ori, baina, «gure» eskuetan dago.

Anartz ORMAZA

ASTOKERIA

Dagonilaren 14an, gaueko 10.30etan. Iru, lau, bost... Iagunek, burua estalduta eukela, txoferrari orroaka eta zemalka urten eragin ostean, BIZKAIBUS zerbitzuko autobusari su emon eutsoen Bakioko Bentako aparkalekuan.

Autobusa eta beraren ingurua be guztiz kiskilduta lotu ziran.

Andixik ur ebilzan oinezkoek, barriz, bildur eta ikaraz beteta, ospa egin bear izan eben inguruetatik, badaezpadan be.

Emon be, urte asko ta asko aaleginetan emon dabe Bakioko erritarrek autobus zerbitzu ohea eta duina jaresteko.

Erritarrek eurok sendoro eskatu ez eze, erriko iru alderdi politikoan auteskunde programetan leenengotasunezko elburutzat be artua izan da asmo ori bein eta brriz.

Zerbitzu ohea geunkalakoaan gengozan, bada!

Urrengo egunean, erriko askoren asarrekuntzea "betikoakana" bideratu zan.

Au da, ezker abertzalekoakan.

Nik, ostera, autobus zerbitzu ohearen alde eurok ainbeste izerdi emon eta gero, edonori jokatuko neuskio erriko Ezker Abertzaleak zitalkeri orretan ezelango zerikusirik ez daukana.

Orreri berberorreri jokatuko neuskio be, erriko Ezker Abertzaleak astokeri andi ori zalantza barik, gatxeritxiko dabela.

Egon be, ziur be ziur nago, buru-estaldu orreek erbestetik etorri zirana, mertzenarioen ekintza burubako eta lotsagarri ori aurre-ara eroateko asmotan.

Zer lortu dabe autobusa erre eta? Bada, Erriak eta, batez be, erriko Ezker Abertzaleak urte askotan egindako aalegin andiari **popatik emotea!** Besterik ez.

Ganorabako ustel alangoak!

Iniaki MARTIARTU

LANDARA ORIOAK ETA GAZTETASUNA

Europako lurralde geienetan amarkadak egin dabez diabetesaren eta nerbio sistemako gaixotasunen aurkako osagai lez azido lipoikoa erabilten.

Oraintsu, ostera, antioxidatzailea dana ikusi dau Texasko Dallas urian dagoan Southwestern Medical Center-en bearrean diarduan Ishwarial Jialal doktoreak.

Ogeita amaika pertsona osasuntsu azido lipoiko ugariko die-teagaz zortzi astean eukita, odola eta txiza aztertu ostean gorputzeko proteinak gitxiago oxidatzen dirala egiazatu dau, C bitamineagaz baino are gitxiago oxidatu be (eta badakigu bitaminea antioxidatzaile ona dana).

Aurkikuntza au gerontologian aplikatu leiteke, ze proteinak oxidatzea da zaartzearen eta biotzeko gaixotasunen eragile nagusia. Azido lipoikoa F bitaminearen eratorria da eta batez be landara orioek eukiten dabe. lore orioak zein oliba orioak, esaterako.

TELEFONOETAKO BIRUSAK

Orain arte birus informatikoeak arduratu egin gaitue, emendik aurrera sakelako telefonoaren bidez be zabalduko ei dira birusak.

Ori dino, beintzat, birusetan jakituna dan David Chess IMB etxeko bearginak. Gaur egun daukaguzan sakelako telefonoak birusetatik kanpo dagoz, baina ez biaretzikoak.

Laster prest egongo diran sakelako telefonoak, berbarako, posta elektronikoz jasotako telefono zenbakia artezean markatze-ko gauza izango dira.

Baina alde onak ez eze, oztopoak be ekarriko dabez, birusek kalte egin aal izango deutsee eta.

Ganera, sakelako telefonoen artcko loturak estuak diran ezker-ko, birusak sano bizkor zabaldu eta kalte andiak sortuko leukeez.

GAUEZ IKUSTEKO KAMAREA

Frantziako Peugeot eta CitroCn automobil etxeak daukazan PSA taldeak urteak egin dauz automobil gidariek gauez obeto ikusteko sistemak prestetan.

Orreotariko baten oinarria automobiletan kamara termikoak imintea da.

Orain arte, teknologia ori batez be militarrek erabili izan dabe. Kamareak izpi infragorriak jasoten dauz, 8-12 mikrometroko uin luzeran.

Jasotako seinalea laster baten seinale elektriko biurtzen da eta pantailan zuri-baltzean azaltzen da.

Oinezkoak, piztiak edo ibilgailu "beroen" irudiak agertzen dira pantaila orretan.

Kamarearen elmena automobileko argiena baino andiagoa da eta, ganera, kamareak oso bereizmen ona dauka. Jaramonik ez deutse egiten, esaterako, argi ikusgaiari, faroei edo lanparei.

PARLAMENTARIO OKUPAK MOSKUN

Errusian arazo larria eukiten dabe auteskundeak izaten diran guztietan: kargua galtzen daben parlamentarioek curen etxe ofiziala itzi gura izaten.

Alan jazo da oraingoan be.

Dumako ordezkariak aukeratzeko autaketea igazko abenduan egin eben, baina parlamentario asko etxe barik dago oraindino.

Kontua da Moskun etxebizitzak itzelean karutu dirala azken aldion.

Ori dala eta, parlamentarioek ez deutsoe uko egin gura karguagaz batera eskuratu eben bizilekuari.

Gaur egun, 200 bat parlamentario okupa dagoz Moskun.

Ondorez, igazko abenduan aukeratu ebezan parlamentarioetarik 80 inguru oteletan dagoz oraindino, okupak noz botako begira. Stalinek burua jasoko baleu...

MAROKO'KO ARETZAK

Marokoko Gobernu arduratuta dago islamistek gero eta jarraitzaile geiago daukezalako.

Ori dala eta, gatazo dauz Justizia eta Espiritualtasuna Alderdia deritxonak eratzen izan dauzen islamistentzako udaleku eta aretzak.

Alderdi orrek udako kanpaldiak eratzen izan dauz aurreko urteotan Agadir, Bunaim, Yadida eta Nador-eko aretzetan.

Islamisten aretzetan emakumezko eta gizonezkoak baktotxa beraren alderdian bananduta egoten dira, eta emakumezkoek bainatzeko be ez dabe jantziak erantzten.

Oporrak, ganera, erlijino ekitaldi ugari egiteko be erabilten dabez, eguneroko otoitzak aaztu barik

Islamisten aretzek itzelezko arrakastea euki dabe, erri xeeari oporraldi merkeak eskaintzen izan deutsoez eta.

Aretzak publikoak diralako, orregaitik atan be, erabilkera pribaturik ezin dabela euki arrazoitu dau Rabateko Gobernuak galazoa justifikatzeko.

Islamistek, ostera, erabagiaren atzean arrazoi politikoak dagozala salatu dabe.

LONDRES'ek MEZU ELEKTRONIKOAK

Britainia Andiko Gobernuak Internet bidezko komunikazio guztiak kontrolatu aal izango dauz gitxi barru.

Orretarako, 7.000 milioi pezeta inguruko inbertsinoa egin (280 milioi libera) eta zentro espezializatu bat eregiko dau.

Zentro orretatik Britainia Andiko ordenagailuetan gordetako mezu elektronikoko guztiak kontrolatuko dabez, baita norbera-norberarenak be.

Erritarrek, bada, ez dabe ezelango intimitaterik eukiko Internet bidezko artuemonetan.

Londresko agintariek lege-austearen aurkako burruka aitatu dabe justifikazino lez.

Gobernuak dinoanez, lege-ausleek posta elektronikoa erabilten dabe alkarren artean komuniketako, eta poliziak zelan edo atan euki bear dau sare orretan sartzeko crea.

ZIDURI

SANTA MARINAREN BASELEIZA

(Mungian)

BASELEIZAK ETA KOFRADIAK


Gure baseleizen eta curen inguruan izan diran kofradien edestia egiteko daukagu eta bear-bearrekoa da gure erriaren sustraiak ezagutu nai ba'doguz.

Lan ederra izan da Kurutze Arregi'k egin dauana, ederra baita gaur Eleizbarrutiaren Museoak egiten diarduan baseleizen katalogoa, baiña lan onetan barrurago sartu bear da eta gure baseleizak, zarrak eta barriak, noz eta zergaitik edo zertarako egiñak diran aztertu, baita gure parroki aundiak lenago zer izan ziran eta zergaitik aundi biurtu ziran. Zalantza barik, or gauza arri-garriak dagoz ostenduta.

MUNGIA'KO SANTA MARINA

Gaur Mungia'ko Santa Marina dakargu gogora.

Baseleiza au Mungia'tik naikoa ur dakagu, km. bat baiño asko geiago ez. Bidea Elordui-ganera eltzen danean, eskumara jo eta beingo baten eltzen gara eta mendi-muiño baten gaiñean dago.



IKUSPEGI

Gure aurretikoak ermitak egiteko, geienetan, toki zoragarriak artu dabez. Zergaitik etc da ori? Eta Santa Marina baseleizea dagoan lekua be ikuspegi eder bat da: Mungia oiñean albo-bide barria ederto agertzen dala, an aurrean Berriaga mendi biguna eta Gaztelumendira arte mendi onen luzapena, beste alde batetik Urduliz'en, itxasotik urrean, beste Santa Marina bat atxean eta Plentzia alboan.

BASELEIZA ZARRA

Gure baseleiza zarrak ez ziran etxegintzaz sendoak, sarritan oiñarriak be ez bear dan lez sakonduak. Orre-gaitik oraintsu konpondu nai izan diranean, baseleiza zarra bota eta barria egin bear izan da. Orrelan Gamiz' ko Ibarra'n San Migel eta Birle' n (Mungia' n berton) San Andres. Beste batzuk konpondu al izan doguz. San Antón barria egiteko dira.

Santa Marina'ren ermita zarra antxe dago, barriaren alboan, baserri baten barruan. Alborantza dauka atea, erromaniko tankerakoa eta millagarren urte ingurukoa. Trobika'tarrak naiago izan dabe baseleiza barria egin, lengoa konpondu baiño.

Mungia'ko baseleiza batzuk etxe baten barruan dagoz, orrelan Atxuri' ko Martin Deunarena eta Belako'ko San Anton, eta etxe-barruak ez dagozenez urrean dauke etxe bat liburutetan freilarena edo serorea-rena edo ermitañoarena deritxona. Eta ba-dakigu, esaterako, Billela sendiak Birle'n ermitaño bat eukala 1000n. urte inguruan.

Santa Marina barruan daukan etxean be sasoi orretan ziur ermitaño edo freilaren bat bizi izango zan.

Zein etc zan eremitar edo lekaime orren zeregiña? Antxiñako gauzak eta aztertu bakoak dira eta erantzuna ez da erreza, baiña oraindiño be zerbait geratzen da, gitxienez kanpaia jo auzokoren bat ilten zanean eta egunero goizean, eguerdian eta illuntzean. Kanpai ori entzuten zanean etxeetan otoitz egiten zan, beti zuzendari ama zala. Mezarik egiten zan iñoz? Kanpotik etorten zan lekaide edo monje'ren bat mezea egiteko, batez be illetea egiteko? Domeketan zer? Ez dakigu. Baiña



bai ermita oneik zer-ikusi aundia eukela Lekaide-Etxe edo Monasterio aundiakaz: Donemiliane (San Millán de la Cogolla), Leire, San Juan de la Peña eta abar. Ortik dator gaur eleizako arduradun diranai emoten jaken izena: Abadea (Erderaz: Abad).

BASELEIZA BARRIA

Trobika auzokoak, ain ospetsu dan Matxin'en auzokideak, Baseleiza egitea erabagi eben, lengoa bota barik alboan geratzen dala. Eta erabagi ori bete be egin zan orain berrogei bat urte: Baseleiza oso egokia ta polita egin dabe. Lengoa baiño egokiagoa, baiña santuak lengoak dirala. Santu bi dira, beste baseleiza askotan lez (Atxuri'n San Bernardo ta San Martin, Birle'n San Andres eta Kofradi-eguna, Llon'a'n eta Belako'n Santa Magdalena batean eta San Anton bestean eta bietan Eneperi deuna...) Emen Santa Marina ta San Inazio dira. Iru-dirik zarrena ta onena Santa Marina da, oiñean txerrena dauala eta espata bategaz oneri erasoten dautsola.

Baseleizearen alboan bear diran gauzak eukiteko toki bat egin dabe eta beste alboan be olako zerbait.



Esaterako Fruniz'en Salbatzaillea dogu zaindari eta erro-maniko tankerakoa dan alboko atean erromesak erabilten eben kontxa edo oskola dago. Eta urrago be Markaida'n daukagu beste baseleiza bat Salbadore zaindari dauala. Izan be Santio-bidekoak Salbadore-zaleak ziran.

Gero Santa Marina'tik Laukariz'ko Santiago'ren eleizara joango ziran, andik ain ospetsua zan eta Berriaga-gaiñean egoan Ezkurra'ko San Bartolome'ra eta andik Bilbao'ko Santiago'ra. Azkenez, Bilbao'tik Orduña'ra gero Orduña'ko portua igaro eta Gaztelako santio-bide nagusira sartzeko. Or bitartean Begoña'ra be egingo eben ikustaldia.

Erromesak bideetan zabaldu egiten ziran eta zalantza barik batzuk joango ziran urrean diran San Anton eta



Magdalena baseleizak ikustera be. Ermita oneitan, bietan, leio bana agiri dira oso zarrak, bisigodoen tankerakoak, orduan 800n. gizaldi-inguruak. Oneik Donejakue bidea beño lenagokoak dira.

GAURKO GIROA

Gaur Santa Marina'ren baseleiza onetan San Inazio eguna ospatzen da santu biak gogoan dirala. Jai ederra ta pozgarria benetan: Auzoko gazteak gurasoen laguntzaz, jaiá gertatzen dabe. Lenengo inguruak egokitu, urtebarruan beti zerbait egoki-ez biurtzen dalako. Gaiñera gauzak eta inguruak garbitu egin bear dira, abots-gailluak gertatu, argiak ziurtatu... Goizko 9'retan egiten da mezea, baseleiza ta kanpoa beterik dirala, meza-erdian "Agur Jaunak" joten dau txitulariak eta azkenean San Inazio'ren martxea. Meza ostean etorritako guztiai txokolata emoten jake, giro eta umore onean. Jaiá pozgarria izaten da.

Gaurko giro onetan zaletasun bereizi bat ikusten da baseleizetako jaiak ospatzeko. Zergaitik ete da? Gure erriaren sustraietan dagoan gauza dalako alde batetik eta beste alde batetik, urtean beingo gauzea eta norberaren naimenez egiten dana dalako. Izango al da bide au gure artean benetako fedearentzat zutabe bat!

OLAZAR'tar Martin'ek

Aurrean zelai naikoa zabal eta ederra dago jaiá egiteko, baiña jaiegunerako egokitu egin bear izaten da.

SANTIAGO EDO DONEJAKUE'REN BIDEAN

Donejakue edo Santiago-bideak garrantzi aundia euki dau gure artean eta Europa guztian, kultura zabaltzeko bide lez, 800n. urtea ezkerro. Bizkaia'n zear bide bat baiño geiagio egoan, baiña guri dagokiguna gogoratuko dogu. Erromes batzuk itxasoz Bermeo'ra etorten ziran eta Bermeo'tik, Sollube igaro-ondoren Mungia'ra. Ez ete da eurak egiña, Galizia'koa alabaz dan Santa Marina au? Eta inguruetako baseleizak be gogoratzen daskue bide au.

BIDALGO-IKURRAK (SELLUAK) EUSKARAZ

AURKEZPENA

- * Arrastion, etorri zaretan guztioi itzaldi onetara, eta onegin daigula danori, beren mamitik ulertzen dogunak.
- * Gura neuke, azkenean, zuek -ere galderak egitea, nikere zeozer geiago ikasi neikelako, danok batzarretik, al dogun ulermen guztiaz urten daigun.
- * Leenengo, esango dautsuet, itzaldi onek uztekebean arrapatu nauala. Latxagaren gogoak leenengoetatik: «bera izan zalako argi emoilte» eta bien arteko gogoak, lan ederra edo guztiz argiduna gura gendulako izan daiteela.
- * Dana dala, ni arduratu egin naiz argitzen «aren ezeean...», bidalگوen ikurrak, Euskeraz zergaitik izan bear diran.
- * Eta, ori eskeiñi egingo dautsuet. Leenengo bidalگوaren edesti labor bat egiñaz.

BRITANIARREN ENTZIKLOPEDIAK DIÑOSKUNA

Luze eta zabal aztertzen dau Britaniarren Entziklopediak gaurko arazo au, baiña guk aztertzen dogun gaia, ikurrarena, ez dau aztertzen.

Lenengo bidalگو-ikurra zer dan diño: Errian edo kanpoan gutuna edo fardela bialtzeko almena emoten dauan txartel-txua: Bialtzailleak aurretiaz ordaintzen dau, urteen joanean ordaintze ori laterriaren eskuetara jausi zan eta laterriak bidalگو-sare bat sortu eben.

Gutunak naiz fardelak gaur mundu guztira bialdu leiz, astuntasuna ta neurria kontuan dirala. Orretarako bidalگوan gutunak artu, moltzotu eta norako diran ikusten dabe, gero eroan trenez, naiz autobus'ez, itxas-ontziz, naiz egazkiñez. Eltzen diran lekuan barriro moltzo txikiagoak egiten dira, etxerik etxe eroan edo kutxatillak ipini artzeko. Gaur, asko aurreratu da lan oneik egiteko lanabes barriak, konputadorak dagozelako, baiña alboan dago «konpetentzia» eta azkar ibili bear da. Emen esaterako SEuR.

Gero bidalگوen edestia, istoria, egiten dau luze: Antziñatik aginterriak ikusi eben komunikabide onak bear zirala aginterriari eusteko. Ejipto'n Kristo baiño 2.000 urte lenago ba-ebiltzazan bidalگو-gizonak. Erodoto'k eta Jenofonte'k diñozkuen tez, Persia'ko aginterrian, 700 urte Kristo baiño lenago, batez be Ziro'ren denporan, ondo eratuta egoan bidalگوa. Grezia'n uri bakoitxak bere bidalگوa eratu eban eta lortu eben egokitasuna, ez da obetu emeretzigarren gizaldira arte: berreun eta irurogeta amar km. egiteko, egun bat eta gau bat ziran naikoa. Erromatarrak ondo jarraitu eben bide ori.

Gero bisigodoak be onak izan ziran bidalگوa eratzten, baiña Karlomagno'ren ostean erri txikiak sortu ziran eta bidalگوak asko galdu eban. Gatzagoa zan.

Bizantzio'tarrak berbiztu eben jokabide au, eta gero arabiarrak ondo be ondo eratu eben.

Ameriketan be, Kolon ara eldu baiño askoz lenago, Kristo baiño milla urte lenago, Mayak eta Inkak ba-euken bidalگو ondo eratu.

Erdi-Aroan, gutun asko ebiltzazan ara eta ona, batez lekaideen artean, eta ikastetxe nagusien artean. Oneik bidalگو taldeak eukezan, batez be Paris'koan.

Italia'ko sal-erosleak be onak izan ziran bidalگو arloan eta oneik asmau eben bidalگو ordaintetarako egiteko bidea. Baiña ez da aitzu bear, Erdi-Aroan ia iñoek ez ekiala idazten eta ez eukela bidalگوaren bear-izanik.

Milla lareun eta berrogeta amargan-en urtean irarkola edo inprenta asmatu zan, eta orrek indar barria ekarri eban gure arlora. Laster ikusi eben laterriak, or irabazbide bat eta «MONOPOLIOA» sortu zan, Paris-ko Ikastetxe-Nagusiak be galdu eban bere almena.

Napoleon'ek, aurrerapen aundia emon eutson bidalگوari, eta milla zortzireun eta amazazpigarren urtean egin zan «COLINA ROWLAND»'en aldaketa. Or agertzen da laterri arteko bidalگو ikurra eta ortik sortu ziran arazo barriak, batez alkarren arteko ordaintetarako. Lenengo amabost laterri batu ziran eta azkenean dana dago Munduko Laterri Batuen edo ONu'ren eskuetan.

GAURKO ARAZOA

Gaurko itzaldia ta mintzaldia, zergaitik Bidalگو-ikurra Euskeraz euki bear dogun, da!, alde batetik. Eta bestetik, zergaitik izan bear dau gauza ber-berori olan!. Bai aundiena ere: «bere izatasunezko izaerak ez daukalako beste biderik ulermenean, beren elburua ezagutzea baiño». Bestela, iñoiz ikusi dozue eta geiago ulertu..., bide-salketari baten-bat..., beste bide-saltzaille baten mozkiñagaitik zabalkundea egiten?. Erotuta dagoela esango geunke zalantzarik gabe.

Ori da!, gaur egunean Euskaldunak egiten doguna. Bear-tuta?, edo ardura aundi barik gabiltzalako tresna orreik gureganatzeko?. Dana dala, Euskalerriko arduraren, garrantzi aundiko atal-bat atzerritarren eskuetan dagoala, bai!! Orregaitik ainbeste «Quevedo, Pelayo, Azorin, Espaina'ko errege, beren sendikoak eta abar. Oso ezberdiñak diralako gauzak Madril'dik edo Euskalerritik ikusita.

Euskaldunak badaukaqu aitzakia, 1839'a ezkeroztik, Espaina'ren indarkeria gaitik menperatuta geratu giñelako, Europa'ko Erri-berezi guztien antzera, nai ta Erri berezi askok bidaiaren antolamendua euren eskuetan euki. Baiña..., ni ez naz konturatu gure ardurazko arlo onekin LATXAGA

(Joxe Mari San Sebastian) jaunak nire begiak zabaldu arte. Arduratu egin gara?.

Selluak, oso urrutikoak izan arren (Grekoz: «Laguna eta Zerga» esan gura dauana, eta HERODOTO'k 484-425 urteetan KRISTO baiño arinago bizi zanak, PERSAren bidalgoa'en antolamendua goratzen dau), 1840'an Lorailla'ren 10'an Britania Aundiak arreran ipini eban, Rowland Hill asmatzailleari esker.

Jakiteko zer dan bidalgoaren edestia, Britania Aundiko Entziklopedia artu bear izan dot (ENCICLOPEDIA BRITANICA-POSTAL SISTEM), eta or ikusten dana da: «agintari-menperatzaille eskuetan egon dala beren antolamendua, eta bai, gaur egun ere!, sasi-jainkoaren agindu-zale Laterriak dagozelako, Espaina artean dala. Ez gaitez an aaztu, gaur egun ere, erdi-mendeko legesekaz gabiltzala eta auek etsaimendekoak dirala. A ta guzti be, bidalgoak daukan gaur eguneko erreztasunera eltzeko, lan askoko gertaerak izan dirala edestian zear.

Dana dala, izadi onen giza, gero -ta jakintsuagoa doalako, ulertzen asi gara: «ARDURAK EZ DIRELA INORENAK».

Espanian, 1850'an jaso ziran, eta or-dago arrazoa Euskal bidalgoko seillurik Euskeraz eta Euskalerriko gizon/emakume ospetsuak, txori-abere, itsas-baster ederrak, baita tokirik politenen irudiak bidalgoko selluetan ez agertzeko, 11 urte arinago arrezkeroztik Espaina'tar Menperatzaille'en ankapen lotuta geratu giñelako.

Orregaitik azaldu bear doguz, zeintzuk eta nolako arauak diran, seilluari eskubide osoa emoten dautsoenak, beren izae-ra berezia, Ludi onen gizartean azalkeratuta, arreran ibiltzeko.

Orretarako, erazko atzerteta batekin ikertu egingo doguz, beren zertzelada bereziak banan-banan argituaz.

* a) Zer dan eta zertarako dan sellua.

* b) Zergaitik eta nork azalkeratu leiken sellua. Bai -ta, nork izan bear dauan Bidalgoko antolamenduaren arduraduna ere.

* d) Erriaren Nortasuna.

* e) Ondorioa.

* a) ZER DAN ETA ZERTARAKO «SELLUA»:

ZER DAN SELLUA: gizon/emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza edo Erri baten berezitasunezko agiri bat da; eta emen mota guztiko selluak sartzen dira: ikus-txartelak, ordezkartzako-txartelak ere bai, seilluaren esangura bardifia daukielako.

ZERTARAKO: norenak diran eskutitzak, ordain agiriak, atsegin-sariak, mezuak eta abar, egiztatzeko, eta nerekiko-berekiko edozein motako mezuak, arreran gure artean ibili daitezkan.

Nortasunarteko mezu-gauzak bearrezkoak diralako, ekin-tza orren agiria dal.

Emen, mota askotako selluak agertu jakuz, Euskalerrria menperatuta egoteagaitik, gaur arte danak! arrotzaren izkuntzan idatzita egon diranak. Ainbesterarte izan dalako galazotasuna Espaina'tar menperatzailleak egin dauana (gaur ere...) gure nortasuna ez daiten agertu iñundik iñora be.

Gaur egun, askatasun aundia eukin da be, asko!, ia larregi esango neuke, erderaz idatzita dagozala. «Or ikusten da, nolako ardura daukagun gure EuskalNortasunaren osasunagaitik». Aitzaki asko ipinten doguz: «artzen dabenak, ez dabelako ulertzen»; eta ori ez da egia, gure izen-abizenak, bai elbideak ere Euskaraz daukaguzelako, ta orrek, danak! ulertzen dabez. Senideok!!, or ez dago aitzakirik.

Dana dala, gu arduratzen gaituna: Grezitarrak ezaugarritako selluaren esangura da «Laqun eta Zerga»; ori dalako erri batek daukan agindupean tresneri onenitariko bat, mezuaren seillu bidetik, gure izkuntza, gizon/emakume ospetsuak, Euskalerriko toki politak, bertoko txori-abere eta abar'zen irudiak, ezautzera emoteko, gure auzoko ta Munduko erri guztiari. Bai!, gure erriak daukan langabezia desager-tu daiten, gure jaurkintzaren antolamendu-on berezi bategaz. Baiña ori, beste adierazpen mami bat da.

* b) ZERGAIK ETA NORK AZALKERATU LEIKEN SEILLUA:

ZERGAIK. Gizon/emakume, elkargo, erakunde, jaurkintza eta batez-be Erriak, beti! gura dabelako beren idazmezuak ondo apaindutako gauzakin eskaintzea, eta ze obe, beren erriak daukazan edertasun guztiak ezagutu daitezkan seillu txukun baten.

NORK AZALKERATU LEIKEN SEILLUA. Eskutitza, nai jaurkintzako, gizon/emakumeena, elkargo, erakunde eta abar izan...: «NEREKIKO-BEREKIKOA da!», orduan, zalantzarik gabe NORTASUNARENA. Orregaitik Nortasunak jokatu bear dau zeregin guztiaz, eta ez! erdi-purdika, Nortasunaren eza, oso-osoan agertzen dalako.

Gaurko giza-garaian, lagun-arteko berezitasunak guzurra eskatzen dau? Lagunak, beti! jakingo dau norberen berezitasunak zeintzuk diran, eta gaur eguneko seilluak Euskalerrian guzurra esaten dabela ere bai; agiri dan izkuntza ez dalako geuria, eta irudiak ere ez!. Baiña atzerrian ez dakitelako gutxik baino, eta gu erdi lotan edo oker gaudelako, eurak errez! eroaten dabe zapaltza ori erdi ostonduta aurrerantza; orregaitik atzerrian ez jako ainbesteko ardurarik emoten. Baiña zalantzan ipinten badoguz indar guztiaz zabalkunde bidetik, gutxien beintzat, begiak zabaldu barko dabez. Eta or! Espaina'ko bai Munduko fazizta guztien guzarra ta ipurdia agirian.

Gaur Europak egi-ziorraz joan bear dualako aurrerantza, eta ez tiroka, bide zabaletik bada ez-badan ostondu egiten dira, alboratu! egiten dira bide erditik, eta ostera be asteko, indarrak berriro egin bear dozuz, lan azkorekin aririk artuaz, aurrerantza bakez jarraitzeko. Orregaitik, Espaina'tar MENPERATZAILE'en guzurra danak jakin arren, ondo baiño obeto ostondu egiten dau beren gezurra ta maltzurkeria, eta danon begiramena aldatuz beren arazotik, gure arazo biur-tuz. Guzti ori, guk! emoten dautsegulako aukera berezia da!

Begitu, zenbat gauza eder daukaguzan ezagutzara emoteko: « txori-abere, izpazter edo itsas-baster ederrak eta zoragarriak, bai gaurko gauza barriak ere; baiña danez gain, gure gizon/emakume ospetsuak: "Arana'tar Sabino, Kanpion'tar Arturo, Barandiaran'tar Joxe Miel, Lekuona'tar Manuel, Azkue, Orixe, Lizardi, Lauaxeta, Onaindia'tar Santi, Akeso-lo'tar Lino, Oñatibia'tar Jon, Zipitria'tar Elbira eta abar asko.

NORENAK IZAN BEAR DIRAN BIDALGOAREN ANTOLAMENDUZKO ARDURAK:

Argi dago, Nortasunaren ardurak izan bear direla, berezitasunaren (berekiko-nerekiko) gauzak diralako. Nortasunak bear dituelako selluaren zergak, gauza askoren artean, askatasunez Euskal-Bidalgoaren ogibide-langintza antolatzeko, eta Erri-Agintearen ekandua, oitura edo etikak, aots-karrazian eskatzen dualako.

Beraz..., begitu nortzuk izan bear garan bearrezko gauzak gureganatzeko.

EUSKAL-ASTEA

Sabinok esaten eban: «Euskalerrria babes barik egoala orduko denboratan» eta egi ber-bera da gaurko egune'tan, MENPERATZAILLE'ak desagertu arte.

«LAN ORI; GuRE NORTASuNEZKO ARDuRAK IRABAZIAZ LORTZEN DA».

* d) ERRIAREN NORTASuNA. Giza seme/alabaren ordezkarietako bidetik lortzen dira berezitasunezko zertzeladak, gizon/emakume eta erriari izaera baka-rra emoten dautsozenak, curen arteko egin-bearrak ikaziz eta oituratuaz, nortasun berezi bat emoten dautsielako. «Euskadi oso zaarra da edestian zear, ori berori ez-jakiteko».

Ba-dira gizon aundiaren esanak, menperatzaileen zapal-tza orrek salatzen dabezanak. Aristoteles'ena adibides: «beartutako agindua galerazo egin ez gero erri berezi bateri, erronka edo aokaldi (ofensa)-benetan astuna izango zala curen Nortasunentzako «eta JAINKOAk ipinitako berezita-sunezko legeari, aokaldi ezin izan aundiagorik».

Orregaitik, len argi geratu dan lez, Nortasunaren gauzak dirala eskutitzaren, bai selluen egin bearrak ere, berezitasu-nak bear dabelako eskutitzaren berotasuna, arremanak eta sinismena erri-arte-ko gisan sendotzeko.

Nortasuna da orduan, indar berezia emoten dautsona berezitasunari, benetako ordezkaria izateko, JAINKOA'ren Legeak agintzen dauskun lez. Orrek esan nai dau, Nortasu-nak bear dauan tresneria, izateko, eurak! euki bear dituela, beren gorputzak eroaten dauazan gauza: gibela, biriak, urdail edo sakela, nai bularrak eta koskabilloak, bizitzako gauzak beteteko. Nerekiko-berekiko gauzak diralako JAINKOAk bakotzari emondakoak.

Nortasuna, saldu-ezin edo eman-ezinezkoa da, eta egine-kotan eriotzea da, kendu egiten dautsozenentzat, bera dalako gure ARIMA, Mundu ontan gizatua eta berak bakarrik egin leikena, edo bete egin leikena JAINKOAk bakotzari emon-dako agindu berezia. Orregaitik Euskalerrrian Nortasunaren ARIMA EuSKERA da!, eta EuSKARAZ euki bear dau gor-putzak eskatzen dautson tresneri guztia: «NORTASuN BARIK, EZ DAUELAKO BIZITASUNIK».

Eta emen, askeneko bastar-arloan...

* e) ONDORIOA

Lan onetako sarreran, leenengo ikusi doguna bidalgoari buruz, Nortasunaren gauza-bereziak dirala eskutitzarenak, bide-zalketaren ulerpideaz. Eta zelan ez diran gauza bardi-ñak Madril'dik edo Euskalerritik ikusita.

Aitzakirik badaukagula aipatu dogu. Bai-ta zer lortzen dogun aitzakian geratu ez-gero.

Britania Aundiko Entziklopedian, zelan Bidalgo'en tres-neri guztiak, Laterri -Menperatzaileen eskuetan egon diran, eta gaur egun ere dagozela, nai-ta apur-apurka Nortasanuz-ko berezitasunak bir-eskuratzen asi.

Bai, nola ez dauan seillurik Euskaraz idatzita 1839 urte arrezkerotik, menperatuta geratu giñelako.

Guzti-au ikusita, erazko azterketa egin bear izan doqu, noren ardurak diran ziur jakiteko, eta argitu egin dogu Sei-llua zer dan, bai zertarako dan ere a) baztar-arloan; beragai-tik, nolako ardura daukagun ikusiaz, oiñarte beintzat.

b) Baztarrean, zergaitik eta nork azalke-eratu leiken seillua. Nortasunarenak dirala oso-osoan ikusiz, berezitasunarenak diralako.

Eta d) baztarrean, Erriaren Nortasuna nota lortzen dan, bai-ta asken baten, zelan diran gure ARIMAREN bizi-esa-kuntzak bidalgo'en gauzak: «gure gibel, biriak, zakel nai

balarrak eta koskabilloak diran gure gorputzak bear dabeza-n antzera, bizirik iraun eta jarraitzeko.

Guzti-au ikusita, ez dogu artuko lotsa apurbat geiago, gure giza-barrenaren egarria asetzeko? Nik uste dot, Erriaren giza-barena izartzeko badaukaguzala batzoki, elkarte eta erri-toki ugari, auek ardurak ezagutzera emonaz lanean aste-ko. Gure gauzak diralako eta bearrezkoak Euskal gorputza-ren osasunerako.

Begitu bestela, Sabinok nolako ardura eta zelan ulertzen eban egoera au, Arantzadi'tar Ingartziri idazten dautson 1901'an urtarrilla'ren 5'eko eskutitzatik.

* «Gogoratzen asten nazenean onetaz edo endaren gora-beran, au bajoakula aitzen dot, eta bajoaku asi dogun gizal-di-au amaitu orduko».

«Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarre-garria da!»

«Aukera bakarra diruan dago, eta ez da aurkitzen». Base-rritarrak geiegi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari. Zuzenbide bakarra langintzako eta trebetasu-nezko elkarteak antolatu, anai-arte-ko ongillak eta arrantza-leentzako elkartasunak (mutualidades), nekazaritzarako, abel-azikerarako, ibilbideak zabaldu edo jabetuz..., bizitzan eskutarteko guztiak legez erritaratuaz (nacionalizando), Eus-kereak zeozertarako balio dagian; nai-ta naiezkoa izan daite-la eurakaz aurtukizuna eukitea. JAINKOA Aundia, Aalduna eta Bakarra da zuzendu leikena! Bearrezkoa da, Euskera naikoa izan dedilla, eta gertatzen dana da, ez dauela balio nekazari-tzako egintzaren izketerako baiño. Bizkaian bear doguzan liburuak be ez daukaguz azibidea burutzeko, guztia ez, baizik erlijiozko-oituraren azibibidea, bear-bearrezkoa dana emaku-me gaztea sendi baten ama izateko be. Ai, nere laguna! Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nork-berak argi ikusten dau; gauza bat oartzen dau: "biotzak negar egi-ten daua, eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu barik". Gure aurrekoak zer egin dabe? Zer egin dau Eleizak?, elizki-deen amak? Gizaldi asko dira gure erri laguntzarik gabe dagoala: "Euskeran ber-beran dago orren ezaugarria. Egiatzko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asierako bidetik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baiña ardura gitxikoa. Gaur arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu orain-dik araso-aldia, beren duitansuna eta zintzotasunak izan dira. Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA'ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona. Nork-berak itauna egiten dau: "JAINKOA izango da, gure ez dauana au desagertzea?"

Benetan konturatu zala, Euskal-ARIMAREN gauzak dirala, gure gorputzarako diran gibel, zakela, bularrak eta koskabilloaren antzera, bizitza, bizitzeko tresneriekin bete egiten diralako.

«Guri egokitzen jaku, bidalgoaren tresneri guztia berrez-kuratzea!»

"NOZ DA ERRIAREN TXANDA?"

Eta au-da, nik esan-bear izan doten guztia "BIDALGO'en IKuRRAK EuSKARAZ IDATZITA EGON DAITEZAN".

ATUTXA'tar PAUL
ZORNOTZAN 2000'an URRIA'ren 23'an

GERNIKA'KO BATZAR ETXEA (IV ERAKUSTOKIA (Museoa))

1964n. urtean urtillaren 12n. egunean sortu zan Bizkaia Jaunerriko erakustokia edo Museoa. Elburua ez zan besterik Jaunerriaren edestian agertzen diran agiriak erriari erakustea baiño.

Erakustoki onetan agiri asko dagoz, 1.366n. urtea ezkeroko edestia Lege Zarra amaitu arteko aldikoa agertzen dauskuenak. Agiritegi au Batzar-Etxe onetan dago. Beste batzuk Bilbao'n dagoan Errialde-agiritegitik eka-riak dira.

Agiriak ez diran beste gauza batzuk be ba-dagoz toki onetan. Agiritegi au sortu baiño lenagotik etxe onetan dagozenak dira, eta balio aundikoak.

Erakustoki onen elburua ba, ez da besterik ikertzailleai labur baiño ez ba'da be, Jaunerriaren edestia ondo eratu-ta agertzea baiño orrelan guztiak ikusi dagien joan diran gizaldietan Bizkaia zer izan dan.

Gaur erakustokia dagoan lekua len be-barru bat izan zan. Iñoz baratz txiki bat be izan da or eta ur-iturri txirriz-tari bat be bai. Gizaldi onen asieran leiarrezko estalkia ipiñi jakon eta 1956n. urtean be egin jakozan aldakuntza batzuk.

PALANKARIAREN INGURUA

Zin-eleizearen eleizpetik erakustokira sartzeko gela luze bat dago eta or aurkitu geinkezan laukiak, argazkiak eta irar-lanak oneik dira:

1°. M.M. Azparren'ek 1847n. urtean Erroma'n margo-tu eban "Bakearen irudia". 2n. -1908.ean Euskal Lurralde-en Ekonomi-Ituna barrizatzeke Erki-Batzordekoak. 3n. Buenos Aires irasi eban Garai'ko Juan'en Gomuta-irudia, Gernika'ko zugatzaren landareagaz batera. 4n. Mungia'ko Matxin'ek 1539n. urtean irabazi eban Prevezza'ko Itxas-gudaldiaren irudia. 5n.- VII Karlos erregegaia bere gudalburuakaz M. J. Martínez Estevez'ek margotua. 6n. -Tejada'tar Karlos'en "Bilbao'ko aretza ta Nikola Deunaren eleizea". 7n.-Bizkai'ko andrak antxiñako jazkiakaz. 8n. -Tejada'tar Karlos'ek margotutako Bilbao'n dan Santiago'ren eleiza'ko eleizpea, gaur gotzain'eleiza. Arri-idatzi batek auxe gogoratzen dau: 1940n.urteko jorraitillaren 1ln. egunean Bizkai'ko Aldundi guztiz goragarriak Vilariño'tar Remigio aita josulaguna, Gernikarra, "Bizkai'ko Seme guztiz argi" izendatu ebala.

Zuzendaritzara sartzeko atearen ondoan, Antxiñako Ziortzako Andra Mari'ren Lekeide -etxetik ekarritako iru gauza dagoz: Lekaide-etxe orretako agiri-kutxa aundia (1550n. urtekoa). XV gizaldikoa eta pergaminozkoa dan kantutegia eta arri idatzi bat, 1551n. urtekoa, aberatz jatu-

na ta Lazaro txiroa gogoratzen dauzana, XVI gizaldikoa: maian jatuna ta emaztea morroiakaz, erdian Lazara txiroa eskean eta txakurra onen odia miazkatzen.

Abadeño'ko Astola Etxetik ekarrita zurean landutako maia, XVIII gizaldikoa, Durangoaldeko batzarrak gogoratzen.

Toki luzanga onen erdi-erdian Palankaria dago, Bizkai'n burdin-meatzetan zan antxiñako kirola gogoratuz. Au Basterra'tar Ijini jaunak egiña da, 1925n. urtekoa. Sevilla'n eta Bartzelona'n izandako Laterri -Erakusketara croan eben, 1928 eta 1929n. urteetan. Igeltzoz egindako irudi aundia da eta metz-gizonaren irudia, palanka aundia jaurtiten. Palankeak berak neurri bi inguruku luzerea dauka eta aitzza zulatzeke erabilten zan meategietan, gero zuloan lerkaiak sartzeko. Olako palanka bat Bilbao'ko Udaletxean dago eta jatorrena Portugalete'ko Txabarri'tar Biktor'en irudiak daukana da. Batzar-Etxeko palankaria-rena laburtxuagoa da, zurezkoa.

ERDIKO ARETOA

Emen leiarpeko kutxa aundi bi dagoz erdian eta alboetan beste amaika leiarpe-talde, binaka, aundiak eta txikiak, eta oneik agiri eta gauza asko erakusten dabez: Marroko'ko Aginterria'ren aurkako Laterri-bande-rea iraindu ebelako. Or dagoz eskualtarea, abade-jazkiak, ikurdia, bost lagundien ikurrak, izkillu batzuk mauruai Tetuan'en Kareaga'tar Ramos Gudalburuak kenduak, V. Paulo'ren bulea Ziortza'ra (1608), I Juan'ek Ziortza'ra (1386), Gerrikaitz uri izendatzea Gaztela'ko I Pedro'k (1336), Ziortza'rako arauak (1384), Batzar Nagusien Batzar-agiri batzuk, Batzar Nagusien Araudia (1864), Loiola;ko Ignazio Bizkaia'ren Zaindari (1680), Santimamiñe'ko koben irudia, Iparragirre'ren leiarpea, eta beste agiri asko eta asko irakurgarriak.

Erakustoki onen inguruan leiñargien ikurdiak dagoz: Salazar, Sangroniz, Abendaño, Villela eta abar.

Azkenez, been idatzita auxe dago: "ETA ORRELAN, GERNIKA ONETARA ETORRITA, ZUGAZPEAN, BIZKAI'KO BATZARRAK EGITEN DIRAN LEKUAN, ASKATASUN ETA LEGE BEREIZI GUZTIAK ZIN EGIN ETA ONARTU BEAR DAUZ". Idazki au 1476n. urtean Fernando Katolikua Bizkai'ko foruak zin egitera etorri zaneke batzar-agiritik artua da.

OLAZAR'tar Martin' ek

BEGOÑA (VI): XIX MENDEA EZKERO


Agertu doguzan gudaldi eta basatikerien ondoren lez, Santutegia txirotasun larrian aurkitzen zan eta eleiza ederra barriztatzea eziña gendun. Begoña'ko Udalak ez eban aurkitzen zainzaille edo "patrono" zana-ren aldetik ezelako laguntzarik eta bearrezko zeregiña zalako, Udaletxea bera eta eskolak baiño be lenago eleizea

konpontzea erabagi eban. Urte batzuk geroago arazo oneri buruz ara zer diñon eleizako buru-taldeak, Kabildoak, Gotzaindegira bialdu ebazan barrien artean: Erriaren aurrean urte batzutan arduradun izana da naikoa, zelako laguntzak erriak emon dauzan jakiteko, eta ori bai Santutegia ber-egiteko lanetan eta bai torrea egiteko, baita Bizkaian onena dan jaun-gurtza beteteko.

1814n. urteko agustuaren 1º egunean ekarri zan Santiago'ren eleizatik Andra Maria'ren irudia beronen Santutegira. Neurtu-eziñeko jentetza izan zan laguntzaille.

Eta eregintza-lanak aurrera joiazan: 1849n. urtean enkantean emon zan torrea ber-egiteko lana, urte batean amaitzekotan. Armona"tar Antonio izan zan etxegiña. Baiña 1862n. urtean, abenduaren 22n.eguneko goizaldean tximista batek kurutzea ta argi-tokia bota ebazan. 1864n. urterako amaituta egoan onen konponketa Eizaga"tar Jose M^a eskuzabalari ezker-rak. Argi agiri ziran gurutze urreztatua eta tximist-gaillua, lenengoz ezarria.

Beste jakingarri bat: Aurreko gizaldietan Santutegia Bilbao'ko abadetaldearen ardurapean egoan eta



(Elorriaga'tar R.'ren can mu~nu). 1, uria edo kolera-gaisoa zala-ta irudia Bilbo'ra jatsi eben.

abade onein arte-tik izendatzen zan txanburua (parro-koa). 1833. urtean Begoña'ko Elizateak Gotzaiñari eskaria eginda, auxe lortu zan: Gotzaiñak Begoña'rako abadetalde bereizia izendatu eta onek artu egiala parrokiaren gogo-zaintza. Baiña aldiak alakoak ziralako, luzaro iraun eban gotzaiñaren erabagi onek betetu barik.

XIX gizaldian izan ziran zori txarrak ain aundiak izan ziralako, Santutegiak ez eban lortu aurreko urteetako ospea ta edertasuna, baiña Bizkai'tarrak euren zaindariari eutsoen maitasunak sendo be sendo iraun eban.

Ona emen zaletasun ori agertzeko jazokizun bat:

– 1855n. urteko iraillaren 8n. egunean kolera deritxon izurriak kalte aundiak egin ebazan. Urtebe-te aurrerago asi zan izurritea Bizkai'ko errietan eta aldizka bigundu egiten zan baiña 1855n. urtera arte iraun eban. Uztaillean izan zan unerik larriena. Bilbao ta Begoña'ko abade-taldeak (Kabildoak) eta Udal-Batzak alkartuta arrentza eratzeko, Bilbao'ra jatsi eben Ama'ren irudia. Arrentza ori iraillaren 8n. egunean izango zan. Urrengo gabeen egin ebazan izurriak ilketarik aundienak, baiña urrengo egunetan bat bera be ez zan il eta izurria ortxe amaitu zan. Ez ziran il aurretik gaisorik egozan banaka batzuk baiño. Arrentza onen gomutakia oraindiño be Basili-karen ormetan ikusi daiteke: Elorriaga'tar Ramon margolariaren eun margotua da.

OLAZAR'tar Martin'ek

TABERNAZAR (BAKIO'N)

Danok ezagututen dogu baserri ori, ondo ezagutu be. Bakioko baserririk zaarrentarikoia ei da, zaarrena ez bada. Bera ikustea baino ez dago, gaur egun egoera tamalgarrian egon arren.

Orain lau-bost gizaldikoa baleiteke be, ezin jakin beraren barri arik eta XVIII. gizaldira arte, asikerako sasoiaren barri txistik be ez dakigula.

Igarriko zenduen lez, eta zuotariko batzuk jakin be, TABERNAZAR izenak dinosku tabernea izan zata, erriko tabernea.

XVIII. gizaldiaren amaieran, «Arestiren Tabernea» lez ezagututen ei eben.

Baina erriko tabernea (udalarena) izan eta eskurik esku aldatuz joan ezker, errentan emoten zalako, izena be aldatuz joan ekion.

XIX. gizaldian «Alegriaren Tabernea» lez ezagututen eben. Sasoi areetan Markos Elgezabalek eukan errentan artuta.

Orduan be, erriko arandegia zan, paitarra, ardao zuna, txakolina eta edari alkooldunak salduko baimena eukan bakarra, atan be.

Baina ez zan taberna utsa, ez. Ostatua be bazan, kanpo-tarrentzako aterpetxea.

Boletan egiteko bolatokia be alboan egoan, bola bi eta bederatzi txirlo eukazana.

Orrez ganera. bertan gordetan ziran erriko pisu eta neurri ak.

Ori olan bazan, beti euki bear ebezan 100eko pisu bat, 50eko beste bat, 40ko iru, 5, 4, 3, 2 eta leko ogeitabost eta 1/2ko amar. Pitxerdiko neurri bat egoan, pinterdiko beste bat (litro erdi) eta txetxuko beste bat (litro laurden). Bear-bearezkoa ziran onila, 12 pitxer eta 12 edontzi be.

Tabernearen ustiapena eta edarien erantzukizuna agiriko errematean emoten ziran.

Labur-labur esanda, olan egiten zan: kandela bat biztuten zan eta orrek biztuta irauan artean egin eitekezan nork geiagok. Azkenengoak irabazten eban.

Orreerario nork geiago bakoxtak erreal bat balio eban.

Leiak eragindako artegatasuna azkenengo unera arte egoten zan.

Alantxe, bada, beragandu eban Markos Elgezabalek TABERNAZAR baserria, 100 erreal ilean-ilean ordainduta, jakina.

Baina ez eban, ez, arazo gitxi euki tabernea zala eta ez zala.

Orduko sasoiaren, karlistadea aurrera eta atzera ebulan.

Bakiok ainbat diru, milaka eta milaka erreal emon bear izan eutsozan alderdi karlisteari.

Baina, eta nondik atara arenbesteko diru mordoa? Bada, dirutsu ziran lagun batzuei eskatu bear izan eutseen, curen artean Markos Elgezabaleri.

Karlistek, baina, gudea galdu eben eta Bakio diru barik eta zorretan leporagino lotu zan.

Markos Elgezabal tabernariari 10.000 errealetik gora zor eutsoezan. Eta ainbat ta ainbat diru beste batzuei be.

Zorrek ordainduteko galazoa egoan, aldundiak alan aginduta.

Irabazleak eta arerioak izan ziran eta.

Bakio miseria gorrian egoan.

Baina, gitxika gitxika urten eban zulo baltzetik eta taberneak taberna izaten jarraitu eban, guk geuk TABERNAZAR utsik, jausita eta arrakalatuta ezagutu dogun arren.

Anartz Ormaza

Berbalapikoa

tamalgarri= negargarri, penagarri.

gizaldi= mende.

ardandegi= taberna.

paitarra= likore, edari bizi.

baimen= onespen, lizentzia.

txirlo= boletan jo eta bota bear dana.

pitxerdi= litro bat baino apur bat geiago.

pinterdi= litro erdi.

txetxuko= litro laurden.

onil= inbutu.

pitxer= edeteko edo neurtuteko ontzia.

ustiapen= diru edo onura atarate.

erremate= enkante.

Ieia= norgeiagoka, dema.

artegatasun= urduritasun, emozino.

galazo= debeku.

areno= etsai.

EUSKERAZALEAK, EUSKERA ERABILTEAREN ALDEKO ALKARTEAK, URTEROKO BATZAR NAGUSIA EGINGO DAU 2001-01-25 EGUNEAN

EGITARAUA:

- 1.- AURKEZPENA (ZUBIRI'tar IÑAKI'k)
- 2.- URTEKO DIRU -KONTUAK (KARMELE'k)
- 3.- URTEKO EKINTZAK (ZUBIRI'tar IÑAKI'k)
- 4.- BATZORDEKIDE BARRIAK
- 5.- ESKARIAK ETA ITAUNAK

EUSKERAZALEAK ASOCIACION PARA FOMENTO DEL EUSKERA CELEBRARÁ SU ASAMBLEA ANUAL EN COLÓN DE LA-RRATEGI 14, 2º, Oª EL 25-01-2001

- 1.- PRESENTACIÓN (IÑAKI ZUBIRI)
- 2.- CUENTAS DEL AÑO (KARMELE)
- 3.- ACTIVIDADES DEL AÑO (IÑAKI ZUBIRI)
- 4.- RENOVACIÓN DE CARGOS
- 5.- RUEGOS Y PREGUNTAS

BAKIO'N

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euske-
rea, askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi bear dan: "gauzeztana".
- Bakion zelan esaten dan: "gausestana".

BERBALAPIKOA

«Berbalapiko» berbea, au da, berbadun lapikoa, esaten izan deutsogu **TXIRRITXOLAn** iztegi antzera atondutako berba mardoari. Oraingo onetan bada, geure-geurea dan berbalapiko berezkoa ekarri gura deutsuego orriotara.

Badira Bakioko euskeran egunean-egunean erabilten diran berba asko, zer edo agaitik, apur bat aaztuta edo baztertuta lotu diranak, Berbok euskera osoarenak dira izan. Eta euskerearenak diran ezkerro, bertokoak izanda, ganera, egunero edonoganako artuemonetan erabilkeran, euskereari berari mesede andia egingo deutsogu. Ikasi eta zabaldu!

OARRA: Berbea, izena edo izenlaguna izanda, zelan idatzi bear danekoan, artikulatu barik agertuko dogu: «luki». Berbori Bakion zelan esaten danekoan, barriz, artikulatuz agertuko da, fonetismoari eusteko, atan be: «(lukidxe)».

albo (alboa)= alde, ondo, aldamen
alboan (alboan)= aldean, ondoan, aldamenean
arainegun (arañegun)= erenegun.
arean (arrien)= 1. zezzer, apur bat; 2. izan be, egiatan
armin (armini)= sargoritsu, egosi.
artez (artes)= zuzen, zuzenki.
artez (artesa)= jator, zintzo, berbako asago
(asou)= urrun, urrin.
aurbeera (eurberie)= beerantzako aldatsa
aurbeeran (eurberan)= aldatsea, beera.
aurgora (eurgorie)= gorantzako aldatsa.
aurgoran (eurgoran)= aldatsean gora.

aurki (eurki)= antza, ei.
begiganeke (begiganeke)= 1. logurea; 2. lotalditxua.
bear dan beste (bidanbeste)= naiko, aski.
bearbada (bierbada)= urrean, agian.
beardanmoduko (bidanmoduko)= ganorazko, on, artez
beingoan (beingoan)= berealan, bat-batean.
beinola (baten) (beñola (beten))= 1. bein baten; 2. aspal-dian.
bellegi (bellegidxe)= ori (margoa).
bestela (bestala)= itzelean.
biago (bidxaoa)= bazkaldu osteko lotaldia.
burre (burrie)= biurgun, errobueta.
daborduko (daburduko)= dagoeneko, onezkero, jadanik.
era batera (erabatera)= era berean, aldi beratan.
eraso (erason)= berba egin eragin.
erreskan (erreskan)= errenkadan, erreskadan.
ez(a) (esa)= falta, gabezia.
ezpabere (espabere)= osterantzean, bestelan.
ezustean (esustien)= ezustez, ustekabean.
gauzeztan (geusestana)= ezgauza, alperreko, ezgai.
gesu baten (gesu beten)= arin baten, laster baten.
gura ez dala (gurestala)= gura barik.
gurata (gureta)= beren beregi, berariaz, apropos.
alan da ze (alandase)= bada, orraitino, beraz.
aretza (aritzie)= ondartza.
arrezkero (arreskero)= ordutik aurrera, geroztik.
ausi (eusi)= apurtu, birrindu.

Iniaki MARTIARTU

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (3.000 pezeta) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA


Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 3.000 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!


ÉUSKALDUN BARRIENTZAT



KARMELE

Marrazki bi bardiñak dira, Zeintzuk?


2 1-~~2~~ uadluzy



EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutat artuten dogu, geure erri onen arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik lagunduten deutsegu gogo osoz, geure nortasun berezia indartuten deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten deusagu, kultur adierazpenen artean, gure ezaugarririk gorena dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa